

Mikro-ipuin lehiaketa 2016

Euskokultur Fundazioak eta Pamiela etxeak 2016ko «Mikro-ipuin lehiaketa»ren deialdia iragartzen dute. Lehiaketa hau Nafarroa, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoako ikastetxeetan euskaraz ikasten duten ikasleei zuzendurik dago.

ARAUAK

1. PARTE HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan Nafarroa Garaiko A eta D ereduak Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek eta Baxe Nafarroa, Xuberoa, eta Lapurdiko eskola eta kolegioetako ikasleek hartu dezakete parte.

2. LANAK

Parte-hartzaile bakoitzak idazlan bat aurkeztu ahalko du, gehienez 100 hitzekoa. Ipuinak originala izan behar du, argitaratu gabea eta beste inongo lehiaketara aurkeztu gabea.

3. KATEGORIAK

Sei kategorietan antolatuko da lehiaketa: D ereduak Lehen Hezkuntza, A ereduak Lehen Hezkuntza, Iparraldeko Lehen Maila (eskolak), D ereduak Bigarren Hezkuntza, A ereduak Bigarren Hezkuntza eta Iparraldeko Bigarren Maila (kolegioak).

4. AURKEZPENA

Irakasleak edo arduradunak talde bakoitzaren lanak bildu eta 2016ko abenduaren 16a bitarte Euskokultur Fundazioari helaraziko dizkio. Horretarako bi bide daude:

Postaz igorri edo egoitzan entregatu, gutun-azal handi baten barruan sartuz EUSKOKULTUR MINTEGIA Baratzeetako zeharkalea 2, behe. 31014 Iruñea helbidean.

1. Lanak: eskuz idatziak, fotokopiatuak edo mekanografiatuak izan daitezke, baina beti goitizenez sinatuak. Orri hauetan ezin da egileen datu pertsonalik agertu.
2. Aparteko gutun-azal txiki batean, egileen xehetasunak (goitizena, izen-abizenak, maila, adina eta hezkuntza ereduak) eta irakaslearen edo arduradunaren harremanetarako datuak (izen-abizenak, ikastetxea, telefonoa eta helbide elektronikoa).

Posta elektronikoz, mezu bakar batean erantsiz mikroipuinak@euskokultur helbide elektronikora.

1. Lanak goitizenez sinatuak PDF formatuan, egileen datu pertsonalik adierazi gabe.
2. Testu-prozesadore formatuan (ODT, DOCX, DOC, RTF), egileen xehetasunak (goitizena, izen-abizenak, maila, adina eta hezkuntza ereduak) eta irakasle edo arduradunaren harremanetarako datuak (izen-abizenak, ikastetxea, telefonoa eta helbide elektronikoa).

5. HAUTAKETA-PROZESUA

Epaimahaiia Euskokultur Fundazioak osatuko du, erakunde horretako kideen eta literatura munduko pertsonen artean aukeraturiko kideekin. Jasotako lan guztiak aztertu ondoren, epaimahai horrek aukeraketa egingen du. Deliberoa 2017ko martxoan ezagutaraziko da, Euskokulturren webgunean eta komunikabideen bitartez. Deliberoari ezinen zaio helegiterik jarri.

6. SARIAK

Kategoria bakoitzeko irabazle bat izanen da eta Pamiela Argitaletxearen liburu sorta bana emanen zaio. Horrezaz gain, epaimahaiak egoki deritzon ohorezko aipamenak egin ditzake. Halere, sariak eman gabe gera daitezke, baldin eta -epaimahaiaren irizpidearen arabera- idazlanek behar bezalako merezimendurik ez badute. Bestalde, epaimahaiak erabakiko du zein ikastetxetan egingen den ikasle, irakasle eta artista gonbidatuarekin ospatu ohi den sari banaketaren ekitaldia. Aurtengo edizioko gonbidatu berezia Oier Sanjurjo Osasuna taldeko jokalaria izango da.

7. ZABALKUNDEA

Aurkezturiko idazlanak Euskokulturren esku geratuko dira. Fundazioak bere webgunean edo beste komunikabide edo euskarritan argitaratu ahal izanen ditu, egilea eta eskola aipatuz betiere. Era berean, Euskokulturrek eta Pamielako lehiaketan eginiko argazki eta bideoak erabili ahal izanen dituzte.

8. OHARRAK

Araudi honetan aurreikusi gabeko edozein arazo ebazteko eskumena epaimahaiak izanen du. Aurkezturiko obren kopurua espero baino handiago izatera, atzerapena izan liteke, epaimahaiak ipuinak irakurtzeko eta aztertzeko aski denbora eduki dezan. Lehiaketa honetan parte-hartzeak arau hauek eta epaimahaiaren erabakia erabat onartzea dakar berekin.

9. HARREMANAK

Lanen aurkezpenerako, informazio gehiago eskuratzeko edota zalantzak argitzeko Euskokultur Fundazioarekin harremanetan jartzeko bideak honakoak dira:

EUSKOKULTUR MINTEGIA

Baratzeetako zeharkalea 2, behea. 31014 Iruñea.

Tfnoa: 00 34 948 14 18 12

E-posta: mikroipuinak@euskokultur.eus